# JAIETAKO EGITARAUA

## ZAPATUA 22

- **18:30 Futbol txupinazoa.** Mintxetan.

## IGANDEA 23
SAN BARTOLOME BEZPERA

- **09:00 Etxaniz memoriala.** Kalegoen plazatik. Helmuga: Pedro Migel Urruzuno kalean, 11:15ean. Sari banaketa, 12:00etan, Kalegoen plazan.
- **10:00 Bisita gidatua** Kalegoengo Done Bartolome parrokiara. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariekin.
- **10:30 Jaien hasiera,** San Lazaro egoitzan eta Eguneko Zentroan.
- **11:30 Iaz jaiotako umeei ongietorria.** Aita Agirre kulturgunean.
- **12:15 Larrain dantza.** Kalegoen plazan.
- **13:00 Txupinazoa.** Institutuak jaurtiko du.
- **Segidan, Mauxitxa Txarangaren kalejira.**
- **16:00 Haur eta nerabeentzako parkea,** Aita Agirre plazan. Giza mahai-futbola, Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.
- **16:30 Sorpresa.** Jubilatuen Biltokian.
- **17:30 Erraldoien, buruhandien eta zezenzikleten kalejira,** Elgoibarko eta Guardiako dultzaineroekin.
- **19:00 Mauxitxa Txarangaren kalejira,** Kalebarren plazatik.
- **20:00 Ignazio Bereziartuaren salbea.** Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokian. Udalbatza parrokiara joango da, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.
- **22:00 Kontzertua:** Muzak. Kalegoen plazan.
- **23:00 Kontzertua:** Süne. Kalegoen plazan.

## ASTELEHENA 24
SAN BARTOLOME EGUNA

- **09:00 Guardiako dultzaineroen diana.**
- **09:45 Udal Txistulari taldearen diana.**
- **10:00 Udal Musika Bandaren kalejira.**
- **10:45 Herriko zaindariaren prozesioa.**
- **11:00 Meza Nagusia.** San Bartolome parrokian.
- **Jarraian, soka-dantza.** Haritz EDT eta Udal Txistulari taldearen eskutik.
- **Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua,** San Bartolome parrokian. Zuzendaria: Juan Manuel Saez Etxabe.
- **16:00 Haur eta nerabeentzako parkea,** Aita Agirre plazan. Barredora, Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.
- **17:30-19:00 Erraldoien, buruhandien eta zezenzikleten kalejira,** Elgoibarko eta Guardiako dultzaineroekin.
- **18:00 Profesional mailako pilota partidak.** Ikastolako frontoian
- **19:00 Kale antzerkia:** *Eutsi, Ramon!* Kalebarren plazan.
- **20:00 Kontzertua:** Alguillo & Alkimistak. Kalegoen plazan.
- **22:30 Kontzertua:** Gozategi. Kalegoen plazan.

## ASTEARTEA 25
TXIKI EGUNA

- **07:30 Diana,** Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.
- **Jarraian, sokamuturra,** Rusoren zezenekin. Maalako parketik.
- **Ondoren, salda eta txorizoa** banatuko dute herriko elkarteek eta Batzokiak.
- **12:00-14:00 / 16:00-19:00 Uretako puzgarriak,** Aita Agirren.
- **12:30 Mauxitxa txarangaren kalejira.**
- **13:00-16:00 Fotokola:** *Jaietan ere, indarkeria matxistari, ez!* Kalebarren plazan.
- **19:30 Rock kalean.** Kalegoen plazatik.
- **22:30 Deabru Beltzak,** Kalegoen plazatik.

## ASTEAZKENA 26

- **16:30 -18:30 Ume eta nerabeen eguneko kamiseta banaketa.** Bolatokian.

## OSTEGUNA 27
ADINEKOEN ETA UMEEN EGUNA

- **07:45 Diana,** herriko dultzaineroekin.
- **Jarraian, sokamuturra,** Lopene ganadutegiko zezenekin. Maalan hasita.
- **Ondoren, salda eta txorizoa** banatuko dute umeek eta jubilatuek, Lekuederren.
- **segidan, Ustekabe txarangaren kalejira.**
- **11:30 - 14:00 / 16:00 - 18:30 Haur eta nerabeentzako parkea.** Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.
- **12:00 Eusko Label hegaluze-parrillada.** Atabal Danborrada Elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.
- **12:00 - 14:00 Umeentzako jolasgunea.** 0-5 urte bitartekoentzat. Bolatokiko parkean.
- **12:30 Jubilatuentzako meza.** San Bartolome parrokian.
- **Meza ostean, kalejiran joango dira kiroldegira,** Ustekabe txarangarekin.
- **14:30 Jubilatuen bazkaria.** Olaizaga kiroldegian.
- **14:30 Haurrentzako herri bazkaria.** LH1etik aurrerako umeentzat. Elizako arkupeetan.
- **15:15 Apar festa.** Kalegoen plazan.
- **17:30 Erraldoiak, buruhandiak, zezenzikletak eta umeen konpartsa,** Kalebarren plazatik.
- **18:00 Dantza Solteko Txapelketa.** Haritz EDTk antolatuta, Udal Txistulari Taldearen eta trikitilarien laguntzarekin.
- **18:30 Futbol txupinazoa. Mintxetan.**
- **22:30 Kontzertua:** Puro Relajo. Kalegoen plazan.

## OSTIRALA 28
GAZTEEN ETA NERABEEN EGUNA

- **07:45 Diana,** herriko dultzaineroekin.
- **Jarraian, sokamuturra,** Ibiri ganadutegiko zezenekin. Maalako parketik.
- **Ondoren, salda eta txorizoa** banatuko dute herriko elkarteek eta Batzokiak.
- **12:00 Goitibehera jaitsiera** Azkuen.
- **Segidan, drift trike erakustaldia.**
- **14:30 Nerabeen bazkaria.** Bolatokian.
- **15:30 Oihan Vega.** Bolatokian.
- **17:30 Profesionalen mailako pilota jaialdia.** Ikastolako frontoian. Sarrera doan.
- **19:00 Elektrotxufla.** Sigman hasita.
- **19:30 Herri kirol txapelketa.** Aita Agirre plazan.
- **23:00 Kontzertua: Kaparrak.** Maalako parkean.

## LARUNBATA 29
BASERRITARREN EGUNA

- **09:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta.** Aita Agirre plazan.
- **10:00 Baltzola eta Lagunak** trikitilarien kalejira.
- **10:00 Limusin ganadu erakusketa.** Aita Agirren.
- **Bitartean, Show cooking-a eta limusin arrazako haragi-dastaketa.** Aita Agirren.
- **11:00 Sagardo txapelketa eta dastatzea.** Kalegoen plazan.
- **11:00 Gazta txapelketa eta salmenta.** Eliizpean.
- **13:00 Sagardo eta gazta lehiaketetako sari banaketak.** Kalegoen plazan.
- **Ondoren, bertsolariak:** Nerea Elustondo eta Miren Amuriza. Kalegoen plazan.
- **17:00 Baltzola eta Lagunak** trikitilarien kalejira.
- **18:00 Mintxeta memoriala:** sanbartolomeetako harri-jasotze txapelketa, Aita Agirren. Emakumeen harri-jasotze erakustaldia ere egingo dute. Euria bada, Ikastolan.



30 SEGUR-arno
CORREDURÍA de SEGUROS
Pedro Basurco - Amaia Pagoaga
Eskerrik asko 30 URTE hauetan gugan jarritako konfiantzagatik eta gure zerbitzua aukeratzeagatik. Etorkizunean ere, zuen ondoan egoteko konpromisoari sendo eusten diogu.
Ondo pasa jaietan!
943 74 80 13
Deba kalea 2, behea
20870- Elgoibar
WWW.SEGURARNO.COM
segurarno@segurarno.com

# Jaiak modu alternatiboan bizi izateko aukera eskaini nahi du Gune Askeak

Abuztuaren 22an hasiko dituzte jaiak, Gazte Asanbladaren 40. urteurrenarekin

**Ainhoa Andonegi**

Abuztuaren 22an beteko ditu Elgoibarko Gazte Asanbladak 40 urte, eta urtemuga hori baliatuko dute Gune Askean jaiei hasiera emateko. Egun osoko egitaraua prestatu dute egun horretarako, eta goizean goizetik ekingo diote gazteek egitekoari. Gune Askean ohi duten moduan, jaia eta lana uztartuko dituzte, betiko legez, eta erreka garbitzearekin hasiko dute eguna. Arratsaldean iritsiko da jaia. Txupinazo alternatiboa botako dute, eta, hain zuzen ere, hurrengo zapatura arte ekintzaz beteko da Maalako parkea.



Iazko Gazteen Eguneko irudi bat. ASIER ORBEA

**Berrikuntza, Wazemank**

Berrikuntzen artean, Wazemank maratoia aipatu beharra dago aurten. Eibartarrei kopiatutako ideia batetik abiatu da ekimena, eta saiatzen ari dira Elgoibarrera ekartzen. Aurrez grabatutako bideo batzuen proiekzioa izango da, elkarrekin barre egiteko.

**Komunitatea sendotzea**

Jaiaz harago, Gune Askean komunitatea sendotzea eta ehuntzea dute helburu ekitaldi guztiek. Autogestioan oinarritutako filosofia da nagusi, eta inolako dirulaguntzarik gabe prestatu dute aurten ere egitaraua, boluntarioen denbora, dedikazio, izerdi eta borondatearekin. Jaietan biltzen duten dirua Jai Batzordeko kide diren eragileen artean banatzen dute. Era berean, Gune Askea ez dela mugimendu edo antolakunde politiko jakin batekin lerratzen azaldu dute, baina horrek ez du Jai Batzordea apolitiko egiten. "Gune Askea instituzioetatik kanpo edo instituzioekiko aske baino antolatu ezin den espazio bezala ulertzen dugu, eta helburua norbanako bakoitzaren askatasuna da", adierazi dute antolakuntzakoek. Izaera feminista, antirrazista, abertzalea... ditu Gune Askeak, eta ez dute onartuko hori oztopatuko duen inor: "Espazio honek denon askatasuna bermatu behar du, eta inork jarrera zapaltzailea duen bakoitzean eskubide hori urratu egiten da; genero, azal kolore, hizkuntza eskubide edo dena delako kontuekin".

# GUNE ASKEKO EGITARAUA

## LARUNBATA 22 GAZTE ASANBLADAREN 40. URTEURRENA

- **09:30 Erreka garbiketa eta txosnen muntaia.**
- **19:30 Txupinazo alternatiboa.**
- **Jarraian, Kittu taldearekin erromeria ibiltaria,** Kalegoen Plazatik Gune Askera.
- **21:30 Slide taldearen kontzertua.**
- **22:30 Gazte Asanbladaren 40. urteurreneko ekitaldia.**
- **Jarraian, kontzertuak: Emepebo5t eta Ufal.**

## IGANDEA 23

- **15:00 Euskal presoen eta iheslari politikoen eskubideen aldeko bazkaria.**
- **Jarraian, kantaldia T3 taldearen eskutik.**
- **22:00 Erromeria, Olgetan taldearekin.**
- **Ondoren, DJ Jotatxo.**

## ASTELEHENA 24

- **21:00 Larrain dantza herrikoia.**



## ASTEARTEA 25

TXIKI EGUNA

- **20:30 - 22:00 / 23:30 - 02:00 Erromeria, Itzal taldearekin.**

## OSTEGUNA 27

- **22:00 Wazemank maratoia.**

## OSTIRALA 28 GGB EGUNA

- **13:00 Gazte Kantariak, Gune Asketik hasita.**
- **15:30 GGB bazkaria, Sigmako aparkalekuan.**

## LARUNBATA 29

- **19:30 Debrassband taldea, Kalegoen Plazatik Gune Askera.**
- **21:30 Oez eta Mozkor Alaiak taldeen kontzertuak.**

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657
Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

943 191952
ASKETA S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS
ONDO PASA JAIETAN!




Softlan
Albitxuri Industrialdea, 3i
ELGOIBAR
943 74 81 05
info@softlan.biz
https://eu.softlan.eus/
Gestio programetan gaude espezializatuak. Software ezberdinak dauzkagu.
Ondo pasa jaietan!